

IKASLEEN TXOKOA 107. ZENBAKIA

Hernani BHI

BATXILERGOA

Kultura eta hezkuntza: euskaratik eta euskaraz.

Batxilergoko ikasleok aurten ere aukera izan dugu kultura eta hezkuntza uztartzeko Hernani BHI Institutuan.

Hernani liburutegiko eta kulturako arduradunekin elkarlanean Biteri Kultur Etxean ikusi eta bizi ahal izan ditugu *Bidasoa 2018-2023* eta *Bizkarsoro* pelikulak, *Kanpora sartzen* eta *Satiro* antzezlanak, *Hitzen ahairea* liburuari buruzko topaketa Gotzon Barandiaran idazlearekin eta Rafa Rueda musikariarekin eta datorren astean *Postdatarik gabeko gutunak* antzerkia ere ikustera joateko gara.

Honetaz gain, Joseba Sarrionandia idazlearekin eta Ines Osinaga musikariarekin *Katuen kontuak* ikuskizuna izan genuen gure institutuan, baita Itxaro Borda idazlearekin poesia tailer batzuk.

Zientzia kontuetan ere Bergarako Laboratorio Museumera eta Oartzungo Arditurri meategietara ere egin ditugu bisitak orain arte beste batzuen artean.

Beraz, orain arte aukera ederra izan dugu kultura eta hezkuntza uztartzeko euskaratik eta euskaraz. Hemendik aurrea bide beretik jarraituko dugula espero dugu ikasturtea bukatu arte, eta datozen urteetan ere bai.

Ondoren erakutsiko ditugun artikuluak, orain arte landutako gai horien lagin bat besterik ez dira. Ekitaldi horien aberatsena gutako bakoitzarengan utzitako arrastoa izan da.

Egileak, ezkerretik eskuinera:

Nahia Benítez Román, Jera Agirre Lizeaga, Ane De Sosa Martin, Nahia Callejon Gomez, Lorea Garcia Bilbao, Leire Perez Imaz, Garazi Zuloaga Uranga, Intza Nabarro Petrirena, Oier Olaso Gamino eta Araitz Lizeaga Makazaga.



Arditurri meategiak

2023ko azaroaren 15ean Hernani BHIko institutuko Biologia-Geologia ikasgaiko ikasleak Arditurri meategietara irteera izan genuen.

Arditurri Oiartzunen, zehazki Aiako Harrietan, kokatzen den antzinako meategi bat da.

Txangoari hasiera emateko, Arditurrira iritsi bezain laster hango geologoek apur bat azaltzeko meategiari buruz, bideo bat jarri ziguten. Bideoak meategiaren sorreraren eta Aiako Harriaren gainean hitz egiten zuen beste zenbait azalpen artean. Bideoa ikusi ondoren, kobazulora abiatu ginen eta sarreran, meategiaren historia ulertzea eraman gintuzten; meategi hau erromatar garaian aurkitu zuten, eta erromatarrek hainbat mineral eta harri aurkitu zituzten bertan. Arditurrira iritsi zirenen lehenak erromatarrek izan zirenez, kobazuloa barneko egitura guztia garai hartan egiten zuten bezalakoa zen, hala nola, ibilbide estuak eta forma gangadunak.

Erdi Aroan ere erabilgarria izan zen meategi hau harri eta mineralak izateko, baina Erdi Arotik aurrera ez zuen erabilerarik izan; aldiz, XX. mendetik

aurrera berriz ere kobazulo hau erabilgarria izan zitekeela erabaki zuten, eta handik material gehiago irabazi ahal izateko, kobazuloa gehiago ireki behar izan zuten, beraz erromatar garaiko arrastoak gutxitu egin ziren. Kobazuloa lehegailuekin handitu zuten, hau dela eta oso arriskutsua izaten zen langileentzat han barnean egotea; alde batetik, eztandak zeudenez arrokak eta harriak eror zitezkeelako, eta beste alde batetik, eztandek askatzen zituzten gas eta keak toxikoak zirelako.

Kobazulo barnean, hainbat harri eta mineral ikusteko aukera izan genuen, haien artean arbela eta granitoa. Meategia ikusi ostean, inguruko erreka batera joan ginen hango bistak ikustera eta arrokak aztertzea. Azkenik, gertuko museo bat bisitatzera joan ginen: Luberrri Museoa. Ikasgune geologiko honetan, gertaera geologiko garrantzitsuak ezagutu genituen; esate baterako, nola sortu zen Aiako Harriko

batolitoa, Euskal Herrian dagoen granitozko egitura bakarra. Era berean, azken 2.000 urteetan Aiako Harriaren inguruan ustiatu diren metal-zainak nola eratu ziren ere jakin genuen.

Hau izan zen gure irteera, eta plan bikaina iruditu zitzaigunez, gomendagarria ikusten dugu geologian jakin mina dutenentzat, edo Euskal Herriaren historia geologikoaren berri izan nahi dutenentzat.

Egilea: Jera Agirre Lizeaga eta Nahia Callejon Gomez Batxilergo 1. maila



Bizkarsoro

Joan den hilabetean, Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleok Josu Martinezen *Bizkarsoro* film estreinatu berria ikusteko aukera izan genuen.

Testuinguru historiko-geografiko berezi batean girotua, nafar-lapurteraz, frantsesez eta alemanez garatzen da filma, baina azpigituluak euskara batuan ditu. Pelikula hau hainbat datatan proiektatzen ari dira Euskal Herri osoan, eta Hernanin urtarrilaren 17an estreinatu zen. Ikasleok goiz partean ikusi genuen, eta arratsaldean herritar orokor artean ikusgai izan zen.

Filmak euskararen desagertapenaren historia eta hura babesteko borroka kontatzen du. *Bizkarsoron*, fikziozko herri bat, 5 istorio kontatzen dira 1914 eta 1982 bitartean, ahozko testigantzetan eta benetako dokumentu idatzietan oinarrituta. Historia hauen bitartez, XX. mendean Ipar Euskal Herriko herri txiki honetan gertatutako aldaketa sozialak aztertzen dira, baita hizkuntza baten sustraitzea eta bere biziraupenaren aldeko ahaleginak ere.

Egia esan, hau izan da eskolan ikusi dugun pelikula batekin benetan gozatu dudana lehen aldian. *Bizkarsoron* kontatutako istorio guzti-guztiek zure arreta bereganatzea lortzen dute, zure burua garai haietara eramanez. Filman, tentsio uneak daude, tristetzen zaituztenek, eta bihotza alaitzen dizuten beste batzuek. Gainera, *Bizkarsororen* alde zinematografia ederra da, eskualdeko paisaia menditsuetatik hasi, eta herriko kaleetaraino iritsi, inguruaren edertasuna eta esentzia transmititzen du.

Nire ustez, film hau ona izateaz gain, beharrezkoa da nondik gatozen ikusteko, eta nora goazen jakin ahal izateko. Josu Martinezek lan bikaina egin du hizkuntza bat nola desagertu daitekeen erakusteko. Hizkuntza baten desagertzea gizartearentzat galera kalkulaezin bat da hainbat alderditatik ikusita. Lehenik eta behin, hizkuntza

bakoitza herri baten kulturaren, historiaren eta nortasunaren adierazpena da, eta, beraz, hizkuntza bat hiltzeak legatu linguistiko eta kultural bat desagertzea esan nahi du. Bigarrenik, hizkuntzak ezagutza eta jakinduria dira, belaunaldietan zehar jasoak, munduari buruzko hainbat ikuspegi eskaintzen dituzten hitz eta kontzeptu itzulezinekin. Hizkuntza bat desagertzea, azken batean, dibertsitate, ezagutza eta nortasuna galtzea da. Horregatik da hain garrantzitsua hizkuntzak zaintzea, bidean borrokatu behar izan arren, film zoragarri honek erakusten digun bezala, are gehiago gurea bezalako hizkuntza txikia eta gutxitua izanik.

Egileak: Ane De Sosa Martin Batxilergo 1. maila



Irungo harrera sarearekin elkarlana

2023ko azaroaren 20an, Hernani BHIko ikasleok Irunera joan ginen.



Irteera hau baino lehen, Amets Arzallusen *Miñan* liburua irakurri eta landu genuen, baita Fermín Muguruzaren *Bidasoa 2018-2023* pelikula ikusi ere. Biek migrazioaren inguruko kontakizun eta esperientzia latzak islatzen dituzte, eta guri gertu geratzen zaigun ibai horretan egunero bizitzen dena hobeto ezagutzeko joan ginen Irunera.

Goizean goiz Hernaniko tren geltokian trena hartu, eta harantz abiatu ginen. Irteeran, bi taldetan banatu eta ibilbidea hasi genuen, batzuek alderantziz egin zuten arren, nire taldea Gurutze Gorriantzen abiatu zen lehena. Haraino zegoen bidea egin genuen oinez, lurreko marka ia ikusezinei jarraituz, geltokira iristen diren migranteek egin

behar duten ibilbide bera egin eta Gurutze Gorria zein urrun eta zein ezkutatua dagoen guk geuk bizitzeko. Ez ginen barnera sartu, baina honen ordez, Gurutze Gorriko egoeran sakontzeko, ariketa praktikoa egin genuen bertan sartzeko beharrezkoak diren baldintzen gainean, eta horiek oso zorrotzak ziren.

Ondoren, Irungo Harrera Sareak duen lokal baterantz abiatu ginen. Bertan, besteak beste, arropategia ikusi genuen eta emakume batek azaldu zigun nola egiten zuten bigarren eskuko arropa, motxila eta zapaten bilketaren antolaketa, baita mugikorrena ere; eta hala, migranteek behar dutenean hara joaten dira bila. Guk behar ez dugun eta egoera onean dagoen

gauza hauetakoren bat izango bagenu, hara eraman genezakeela esan zigun, laguntzeko. Hau dela eta, gure institutuan arropa, oinetako eta mugikorren bilketa bat antolatu genuen eta emaitza polita izan zen. Gainera, lokal berean, hainbat pertsona ikusi genituen, irakasle baten laguntzaz hemengo hizkuntzak ikasteko ahaleginetan.

Hamaiketako egin ostean, San Juan Plazara joan ginen. Han elkartzeko Irungo Harrera Sareko boluntarioak migrantei dituzten aukerak eta momentu hartako mugako egoera azaltzeko, eta guri ere azaldu ziguten zer edo zer. Bertan aurkitu genuen Amets Arzallus idazlea ere. Azkenik, mugarantz abiatu ginen. Onartu beharra dago eguraldia

ez genuela oso lagun izan, baina ibilaldi nahiko luze baten ostean iritsi ginen mugara, eta beste aldera gurutzatu ere egin genuen. Gure irakasleak azaldu zigun nola egoten den polizia muga kontrolatzen, eta nahiz eta gu arazorik gabe pasa, migranteak nola arriskatu behar izaten ziren esan zigun, baita harrapatuz gero jasaten dituzten ondorioen berri eman ere. Irun aldean *Bidasoa 2018-2023* pelikulan ikusitako itota hildako migranteen omenez eginiko harrizko monumentua ere ikusi genuen. Azkenik, tren geltokira itzuli, eta Hernanira bueltatu ginen.

Irteera interesgarria iruditu zitzaidan, ez bakarrik han egindako ibilaldiagatik, baita aurretik egindako lanketagatik

ere. Gugandik oso hurbil dagoen leku hartan pertsona asko hil dira bizi hobe bat izateko ahaleginetan, eta honetaz kontzientziatu beharra dago. Umeek nahiz helduek jakin behar dute hemendik kilometro gutxira gertatzen ari dena, eta hala, laguntza ematea errazagoa litzaiteke. Askotan ez dugu ikusten zelako zorzea izan dugun, eta zein baldintza onetan bizi garen, ez diegulako gure inguruan gertatzen ari diren gauzei arretarik jartzen. Begiak itxita egongo bagina bezala da, baina bada unea begiak irekitzeko, egoera hau aldatzeko garaia baita.

Egilea: Lorea Garcia Bilbao Batxilergo 1. maila

Kanpora sartzen

Inork ez du espero egun batean seropositibo zarela deskubritzea, gaitz horiek beti kanpotik ikusten ditugu, eta ez zaigu burutik pasatzen guri ere gerta dakigukeela. Hauxe bera ikus dezakegu Xabin Fernandez eta Intza Alkainen *Kanpora Sartzen* antzezlanean.

Xabinek jakin zuen duela hamaika urte seropositibo zela, eta geroztik bere bizitza hainbat modutara aldatu da. Honelako egoera batek ez du bakarrik birusa ekartzen, beldurra, lotsa, haserrea, osasun mentalarekiko arazoak, eta beste hainbat faktore ere erlazionatuta daude. Antzerki honen hori bera irudikatzen du. Xabinek bere egoera onartzeko zein fasetatik pasa behar izan duen kontatzen digu birusarekin batera.

Antzezlanaren originala eta entretenigarria bihurtzen duena Intza Alkain da, birusaren papera egiten duen aktorea. Xabinek eta berak istorioa batera kontatzen dute modu polit batean, eta umorez beteta ere. Oso ondo azaltzen da Xabinen



bizipena, antzerkian erraz irudikatzen da egoera bakoitza. Gainera, beti entzun izan dugu beste gaixotasunei buruz, baina inoiz ez HIESAri buruz, eta iruditzen zait oso interesgarria dela, denok erraz ulertzeko moduan azaltzea.

Lantzen dituen gaiak oso gogorrak dira, baina umorea erabiliz gaixotasuna desdramatizatu egiten da, antzezlanaren alaiago eginez eta gaitzaren tragikotasuna alde batera utziz. Intseguritatea denok bizi izan dugun sententzia da, eta hori da protagonista ulertzerantz bul-tzatzen zaituena.

Lehen esan bezala, askotan uste izan da gaixotasunak bakarrik eragina duela gaixorengan, baina bere inguruko ere eragiten dien zerbait dela ulertu behar da. Hori dela eta,

gainerakoei gai honi buruz hitz egitea kostatzen zaienaz ere hitz egiten du. Bere gaixotasuna ezkutuan tratatzen zuen, lotsa edo besteek nola erreagionatuko zuten beldur, eta hori ere oso alderdi interesgarria da.

Bukaera ezin hobea da, Xabinek gaixotasunarekin bizitzen ikasten du; eta hasieratik birusarekin, Intzarekin, izan duen erlazioaren garapena amaiera oner iristen da. Hasieran, monstroa edo piztia balitz bezala aurkezten zaigu birusa, inork nahi ez duen zerbait, baina antzezlanaren aurrera joan ahala Xabinek ulertu egiten du gaitzarekin bizi behar duela eta bere egoera eta bere burua onartu behar duela den bezala.

Egilea: Nahia Benítez Román Batxilergo 1. maila

Feminismoa eta gaztedia

Martxoaren 8a iristear dago, jendea hasia da iada lurretako hautsak harrotzen, baina zertarako balio horrek, benetako konpromisorik ez badago horren atzean?

Lehenik eta behin, adierazi beharra dut, feminismoa alde guztietatik oztopatzen dela. Alde bategatik, edukiari erreparatu gero, ikus dezakegu, gure eskolako liburuetan ez dela ia emakume bat bera ere azaltzen. Filosofian esaterako, ematen ditugun autore gehienak gizonak dira, egia da, bai, emakumeren bat landu dugula, edo lantzekotan gaudela, baina hala ere, eduki bakan bat da hori. Gehiago esango dut, irakasleek gehigarri gisa aipatzen dute soilik emakumearen gaia, izan ere, selektibitateko edukiaz urrun geratzen da eta batxilergoko ikasturtea oso motza izanik, ez du denborarik ematen hortik bereiztutako ezer berririk emateko. Zientzia arloan ere, gauza bera gertatzen da, emakume askoren aurkikuntzak itzalean geratzen dira.

Bigarrenik, egunerokotasunean bizi duen egoera batek kezkatuta nauka. Zenbait ikasle feminismoan murgildurik gabiltza, gauzak aldatzeko ahaleginaz,

are gehiago, harro esan dezaket ikasleok osaturiko Matxisalto izeneko talde feminista bat dagoela eskolan. Gauzak horrela, badira ikasle ugari gure lana oztopatzen dutenak, egun puntualtan antolatzen ditugun ekintza, tailer eta dinamikaz barre egin eta horretaz gainera, egoera zail baten aurrean jartzen gaituztenak. Hori dela eta, argi eta garbi utzi nahi dut, nazkatuta gaudela jarrera oldarkor horretaz.

Hau guztia esanda, iruditzen zait ezinbestekoa dela gazteen arteko sartzeko bultzatzea eta horrenbestez, egun puntualak gain, beste jarraitutasun bat edukitzea gauzak lantzerako garaian. Badakigu selektibitateko edukia ez dugula egunetik egunera aldatuko, ezta eskolako ikasle askoren jarrera ere, baina badakigu gauzak aldatzeko ahaleginetan jarraituko dugula, martxoak 8 ez baita egun bat soilik, egunero da.

Egileak: Institutuko Gazte Feminista batzuk

Laboratorium Bergara Zientzia Museoa

Duela bi hilabete, Hernani BHI institutoko ikasle talde bat Laboratorium Museoa bisitatzera joan


Gipuzkoako Bergara herrian kokatzen den zientzia museoa da, eta bertan, zientziako hainbat arlotako aurkikuntzak eta teoriak azaltzen dira, besteak beste: Elhuyar anaiek egindako ekarpenak, Darwin-en eboluzioaren teoria eta Arinteroren lana. Goizeko 9:00etan abiatu ginen Bergararuntz, eta 40 minutuko bidaiaren ostean, herria izan genuen museora bidean. Talde handia ginenez, bi zatitan banatzeko aholkatu ziguten, horrela bisita eramangarriagoa izan zedin.

Hasieran, Bergaran zehar erakin batzuk bisitatzeko ibili ginen, haien artean Bergarako Seminarioa. Bergarako Errege

Seminarioa Gipuzkoako eta Euskal Herriko hezkuntza eta ikerketa zientifikoko gune prestigio-dunetako bat da. Hala izan da XVI. mendeko amaieratik gaur egun arte, nahikoa da gogoratzearekin 1783an instalazio horietan Wolframioa aurkitu zela (elementu kimiko berri bat), eta platinoa xaflatzetu ahal izateko metodoa bertan garatu zirela jakitearekin. Eraikin honetan egon zen Gipuzkoako lehenengo Lorezaintza Lorategia eta lehenengo meteorologia-behatokia; baita Euskal Herriko lehenengo ingeniarietza heziketa eskola ere; honetaz gain, Seminarioan osatu ziren lehenengo Natur Zientziak (lorategia, zoologia, mineralogia) helburu zientifikoz

bakarririk izanik. Honekin batera ere, Elhuyar anaiek herriko zein lekutan lan egiten zuten ezagutzeko aukera izan genuen.

Gero, museoan sartu ginen. Bertan, lehendik eman ziguten fitxa bat bete behar genuela azaldu ziguten (bisita-gida antzeko bat), eta honek bisitan zehar arreta gehiago jartzeko lagundu zigun. Hasieran testuinguru historikoa hobeto ulertzeko bideo bat jarri ziguten, eta jarraian, gidarekin hasi ginen bisita. Oso harrigarria iruditu zitzaidan nola eboluzionatu eta hobetu duen teknologiak gaur egun arte, izan ere, museoan



duela ia 200 urteko tresnak kontserbatzen dituzte, adibidez: Edisonen fomanografoa, Dilatometroa, Carré-ren makina... Honez gain, lehen aipatutako Darwin-en teoria, eta Juan Gonzalez Arinteroren lanak aztertu genituen, baita noski, Elhuyar anaien bizitza eta historia ikasi ere. Gainera, Wolframioa lortzeko prozesuan ere lan egin genuen, modu interaktibo batean, bideo lagungarri bat jarraituz.

Azkenik, bisita guztia amaitu ondoren, denbora libreka utzi ziguten Bergara gure kasa ezagutzeko. Guk bazkaltzeko apro-

betxatu geneun bitartean, beste batzuk herriko kaleetan zehar ibili ziren.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, irteera oso interesgarria izan zela esango nuke, batez ere gure adin bereko ikasleentzat. Iruditzen zait zientziaren mundua gustatzen zaienentzat irteera paregabea dela, biziki disfrutatzen delako. Azalpen argiak eman zizkiguten uneoro, eta gustura atera ginen bertatik.

*Egilea: Leire Perez Imaz
Batxilergo 1. maila*

Musika airean

Musika airean ez da emoziozko liburu bat, ezta hasieratik bukaerara harrapatzen zaituena ere.

Baina liluratu egiten zaitu, protagonistaren bizitza irakurri zure bizitzaren inguruan pentsarazten zaituelako. Bizitzaz eta zahartaroz hausnarrarazten zaitu, horrek dakarkien guztiarekin.

Elena emakume alargun bat da, jada zahartzaroan murgilduta, eta musikaren bidez bere oroitzapenak gogorarazten ditu. Lehenengo, umea zenekoa, "ama, aita, zenbat urterekin ezkonduko naiz." gero gaztarokoa, bere senarra ezagutu zuen eguna, lagunarekin eduki zituen liskarrak, barkamenak eta heriotzak...

Hasieran ikus dezakegu nola Elena bakarrik bizi den, gaztaroko minarekin. Baina liburua irakurtzen goazen heinean bere istorioa ezagutzen dugu, eta bere izateko modua ulert dezakegu ere. Hala ere, azpimarratzekoa da zer gutxi ezagutzen duten bere seme-alabek, edo zer gutxi dakiten berari buruz. Liburua bere gaztaroaren flash back-ekin sortua dago, horrela hobeto ulertzeko adin bateko pertsonen nola ikusten duten haiek bizitakoak, eta oroitzapenak. Liburua bere bertan oso ederra

da, baina nire ustez, garrantzitsuena zure barnean sortarazten dizuna da.

Gaur egungo gizartea zahartzeko beldur da, bai zure itxurari egiten dionagatik, bai gizarteak zuri egiten dizunagatik. Gizarteak pertsona zaharrak baztertu egiten ditu, zakarretara botatzen ditu. Eman behar zutena eman zuten, eta orain ez dute ezertarako balio, eta hori da beldur gehien ematen diguna: iada ez izatea gizartearen parte. Niri liburu honek tripak nahasi dizkit, eta zahartzen naizenean nolakoa izango naizen pentsarazi dit. Azkenean, arratsaldea hipotesiak egiten pasa dut. Protagonistak bezala, kalera ateratzeari utziko diot? Beldurrek ez didate aurrera jarraitzen dugu, eta bere izateko modua ulert dezakegu ere. Hala ere, azpimarratzekoa da zer gutxi ezagutzen duten bere seme-alabek, edo zer gutxi dakiten berari buruz. Liburua bere gaztaroaren flash back-ekin sortua dago, horrela hobeto ulertzeko adin bateko pertsonen nola ikusten duten haiek bizitakoak, eta oroitzapenak. Liburua bere bertan oso ederra



bizitzak garrantzia izateko sortzen ditudan oroitzapenak balioa eduki behar dute.

Ezin da biharko utzi gaur egin dezakeguna, baina ez momentua bizi behar delako, baizik eta zahartzean bizi ona izan dudala pentsatzeko gai izan nahi dudalako. Protagonistak oroitzapenak maitasun edo tristuraz gogoratzen dituen bezala gogoratu nahi ditudalako nik ere. Liburu honek guzti hori sentiarazi dit, eta horregatik gustatu zait hainbeste istorio hau. Ez delako zer irakurtzen duzun, baizik eta zer sentiarazten dizun.

*Egilea: Garazi Zuloaga Uranga
Batxilergo 1. maila*



Itxaro Borda poetarekin hitzordu paregabea

Mare liburuaren irakurtaldian ezagutu eta hanbik bi hilabetera Hernani institutuko batxilergoko hainbat ikaslek Itxaro Bordak gidatutako poesia taileraz ikasteko aukera apartaz gozatu ahal izan genuen aurreko asteetan. Milaka orri zuriren aurka borrokatutako iparraldeko poetaren eskutik, poesiaren munduan murgildu ginen ikasleok, olerkiek sorrazten dituzten emozio eta zirrarez gozatzen. Izan ere, Itxaro

Bordak irakatsi bezala, poemek sentipenak eta pentsamenduak paperean islatzeko boterea dute, norbanakoa libreki espresatzea ahalmentzen dutenak. Poesiaren munduaren atea irekitzeagatik eta guri helarazitako jakinduria eder horregatik, ES-KERRIK ASKO ITXARO!

*Egileak: Haizea Cano García,
Araitz Lizeaga Makazaga eta
Oier Olaso Gamino
Batxilergo 2. maila*